

## Sektoreari buruzko informazioa

Lanbide-heziketa osatzen duten 26 lanbide-arloetako bat da. Euskal Autonomia Erkidegoan lanbide-arlo horrekin lotzen diren ekonomia-jarduerak **Barne Produktu Gordinerako egiten duten ekarpena** % 0,99 ingurukoa izan zen 2016. urtean.

Lanbide-arlo honetan, Jarduera Ekonomikoen Sailkapena Nazionaleko honako epigrafe hauetan erregistratutako enpresak edo erakundeak aztertzen dira:

### JARDUERA EKONOMIKOEN SAILKAPEN NAZIONALA

9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak
9602	Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk
9604	Mantentze fisikorako jarduerak
9609	Beste inon sailkatu gabeko beste zerbitzu pertsonal batzuk



Sektoreari  
buruzko  
informazioa

Hona hemen epigrafe horietako bakoitzeko **establezimendu kopurua** EAEn:

JARDUERA (JESN)		ESTABLEZIMENDU KOP.
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	241
9602	Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk	5.597
9604	Mantentze fisikorako jarduerak	111
9609	Beste inon sailkatu gabeko beste zerbitzu pertsonal batzuk	423
GUZTIRA		6.372

Iturria: EUSTATen datuetan oinarrituta landutakoa


Beraz, jarduera-adarren multzoan dauden 175.393 establezimenduetatik, guztira 6.372 establezimendu dagozkie aztertutako sektoreko enpresa-jarduerari. Hau da, Euskal Autonomia Erkidegoan, enpresa-establezimenduen % **3,6 Irudi Pertsonala lanbide-arloko kualifikazioei dagozkien ekonomia-jardueretakoak dira.**



### Sektoreari buruzko informazioa


Enpresen tamaina, berriz, nahiko txikia da. Izatez, enpresen % 99,54k 10 langile baino gutxiago dute, % 0,44 10 eta 50 langile artean dituzte, eta establezimendu bakar batek du 50 langile baino gehiago.

- 10 langile baino gutxiago
- 10 eta 50 langile bitartean
- 50 langile baino gehiago



Jarduera horietan ari diren establezimenduen artean, forma juridikorik ohikoena pertsona fisikoa da. 2016. urtean forma juridiko honek % 81,2 hartzen du. Ondoren, sozietate mugatu gisa eraturako enpresak datoz % 9,8rekin, eta azkenik, bestelako sozietate eta elkarteek %8,9 hartzen dute. Sozietate anonimoak %0,1era baino ez dira heltzen.

- Banakako enpresaburua edo pertsona fisikoa
- S.M.
- Bestelako sozietateak eta elkarteak
- S.A.



## Sektoreari buruzko informazioa

**Giza baliabideei dagokienez**, EAEko biztanleria landuna, aztertutako urteetan (2012-2016), gora egin du urtetik urterako % 0,13ko erritmoan batez beste.

Aztertutako jardueretan, % 1,49 hazi da.

2016an lanean ari ziren guztien % 1,6 inguruk egiten zuten Irudi Pertsonalaren lanbide-arloarekin lotzen diren jardueretan.

**Adinaren eta sexuaren arabera banaketari dagokionez**, 2016.urtean egindako kontratuak honela banatzen dira:

### ADIN TARTEAREN ARABERAKO KONTRATUAK

ADIN TARTEA	JESN 90		JESN 96	
	G	E	G	E
< 25 urte	204	129	350	1.234
25 – 44 urte	896	386	851	2.653
< 44 urte	389	176	343	687
<b>GUZTIRA</b>	<b>1.489</b>	<b>691</b>	<b>1.544</b>	<b>4.574</b>

Iturria: Bertan landua. SEPEek emandako datuen arabera



**Sektoreari  
buruzko  
informazioa**

Azkenik, hona hemen epigrafe bakoitzari dagokion **establezimendu kopurua lurraldez lurralde:**

**ARABA**

JARDUERA (JESN)		ESTABLEZIMENDU KOP.
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	18
9602	Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk	679
9604	Mantentze fisikorako jarduerak	16
9609	Beste inon sailkatu gabeko beste zerbitzu pertsonal batzuk	43
GUZTIRA		756

**BIZKAIA**

JARDUERA (JESN)		ESTABLEZIMENDU KOP.
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	81
9602	Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk	2.986
9604	Mantentze fisikorako jarduerak	70
9609	Beste inon sailkatu gabeko beste zerbitzu pertsonal batzuk	210
GUZTIRA		3.347



Sektoreari  
buruzko  
informazioa

GIPUZKOA

JARDUERA (JESN)		ESTABLEZIMENDU KOP.
9002	Arte eszenikoen jarduera lagungarriak	119
9602	Ile apainketa eta beste edertasun tratamendu batzuk	1.897
9604	Mantentze fisikorako jarduerak	28
9609	Beste inon sailkatu gabeko beste zerbitzu pertsonal batzuk	119
GUZTIRA		2.163

- BIZKAIA
- GIPUZKOA
- ARABA

